



Amaieran, Nathaliek eta Eliasek oroigarriak jaso zituzten Ana Urchuegia alkatea eta Jone Altuna zinegotziaren eskutik.



Xabier Iglesiasi *Zorionak zuri* jo zion Zero Settek, bere urtebetetzea baitzen.

Aurtengo edizioa ere arrakastatsua

Zero Settek antolatuta, Seigarren Akordeoi Jaialdia ospatu zen larunbatean kulturetxean

TXINTXARRI

Jende asko hurbildu zen larunbatean Manuel Lekuona Kulturetxean ospatu zen Akordeoi Jaialdira. Aurtengo seigarren edizioa izan da bi gonbidatu izan zituen; alde batetik Xabier Iglesias lasarteoriatarra eta bestetik Nathalie Boucheix.

Maidar Seguiolak aurkeztu zuen emanaldiari hasiera Xabier Iglesiasek eman zion. Bi pieza eskaini zituen Xabierrek, Iñigo Peña konpositorearen *Impaciencia* eta J. Mecer-en *Autumn Leaves*. Emanaldi bikaina burutu zuen Xabierrek eta merezitako txalo zaparrada jaso zuen entzuleengandik.

Jarraian Nathalie Boucheix-ek 17 pieza eskaini zituen bere taldearekin batera. Ez da lehenengo aldia Nathaliek Lasarte-Oriako Akordeoi jaialdian jotzen duela, orain bi urte ere egon baitzen, eta izandako arrakastaren ondoren, berriro gonbidatzea erabaki dute. Oraingoan Nathalie ez da bakarri etorri, berak zuzentzen duen Musika eta Akordeoiko Zentruko hiru musikariek etorri zen.

Oso abesti ezagunak jo zituzten Nathaliek eta bere

taldekideek, batzuk oso erritmo bizikoak. Perles de Cristal piezan, ikusleei txaloekin abestia jarraitu zezaten eskatu zien, eta amaieran merezitako txaloaldia jaso zuen. Abesti ezagunak jo zituen Nathaliek, esate baterako *La Parisienne à Seville*, *Besame Mucho*, *La Cucaracha*... Bere saioaren amaieran oso gustura egon zela adierazi zuen, esker oneko entzuleak zeudela eta, beste pieza bat jo zuen. Amaieran txaloaldi luzea jaso zuen.

Hamar minutuko atsedenaldia egin ondoren, Elias Goikouria zuzentzen duen herriko Zero Sette akordeoi orkestraren txanda izan zen. Hauek bi pieza jo zituzten,

Zero Sette orkestrarekin batera, Xabier Iglesias herritarra eta Nathalie Boucheix aritu ziren

Gioacchino Rossiniren *La Gazza Ladra* eta lehenengo aldiz, Iñaki Urkizuren *Dantzaldia*, poutpourri euskaldun. Iñaki Urkizu bera entzuleen artean zegoen eta jaialdiaren amaieran, interpretazioa asko gustatu zitzaiola esan zuen.

Sorpresa

Aurten ere entzuleei sorpresa bat eman nahi zieten antolatzailenek eta Zero Sette orkestrak, Nathalierekin batera Edith Piafen abesti bat jo zuten Eliasen gidaritzapean.

Jaialdiaren amaieran oroigarri bana jaso zuten Nathalie Boudheix-ek eta Elias Goikouriak Lasarte-Oriako udaleko agintarien eskutik, Ana Urchuegia eta Jone Altuna. Ondoren Zero Setteko lehendakaria den Jose Antonio Reyk oroigarri bat eman zion Xabier Iglesias gazteari.

Zero Setteko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete Lasarte-Oriako Udalarai eskainitako laguntzagatik eta Semblante Andaluz elkarteari afaria bertan egiteko aukera izateagatik.

Jadanik hasiak dira hurrengo edizioa prestatzen. Ziur egon aurtengo kalitate berbera edo handiagoa izango duela. •



Berriro ere Nathaliek arrakasta handia izan zuen entzuleen artean.



Zero Sette Akordeoi Orkestrak Urkizuren *Dantzaldia* lehenengo aldiz jo zuen.